

12. Izaera pertsonaleko datuak babesten

Informazioaren tratamenduan kontuan hartuko da Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikatu beharreko gainerako xedapenak.

Arduraduna: Azkoitiko Udala. Herriko plaza z/g. 20.720 Azkoitia. Telefonoa: (+34) 943 08 00 80. Datuen Babeserako Ordezkariekin harremanetan jartzeko helbidea: dbo@azkoitia.eu

Helburua: Datuak kontaktu gisa gorde eta erabiliko dira jarduera profesionala aurrera eramateko garrantzitsuak diren jardueretarako.

Legitimazioa: Interes legitimo batean oinarritzen da legitimazioa.

Jatorria: Zuzenean interesdunarengandik.

Hartzaileak: Ez dira aurreikusten hirugarrenei egindako datu-komunikazioak.

Eskubideak: Datuetan sartzeko, datuok zuzentzeko, suntsitzeko, datuen eramangarritasunerako eta datuen tratamendua mugatu edo uko egiteko eskubidea gauzatu ahal izateko, idatzizko komunikazioa eta zure nortasun-agiriaren kopia bidali behar dituzu arduradunaren helbidera edo Datuen Babeserako Ordezkariekin harremanetan jartzeko helbide elektronikora.

Uste baduzu ez zaizkizula errespetatu eskubide horiek, Datuen Babeserako Euskal Bulegoan edo Datuen Babeserako Espainiako Agentzian erreklamatu ditzakezu.

Informazio gehigarria: Informazio gehiago nahi izanez gero, begiratu Datuen Babeserako Politika (<https://azkoitia.eu/lege-oharra>).

13. Publizitatea

Deialdi honen testu osoa udaleko webgunean dago: www.azkoitia.eu

14. Hudeaketa

Interesdunek argibideak eskatzeko edo galderak egiteko Azkoitiko udaleko Euskara zerbitzuarekin harremanetan jarri ahal izango dira, 943 857 175 telefonora deituz edo euskara@azkoitia.eu posta elektronikora idatziz.

15. Lezeria

Saria emateko, deialdi honetako oinarri arautzailetan, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean eta hori garatzeko xedapenetan aplikagarri diren administrazio-zuzenbideko gainerako arauetan ezarritakoa aplikatuko da eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko gainerako arauetan ezarritakoa.



Azkoitixen hike

LOGOTIPO LEHIAKETA

Hik bai?

Zertarako?

Azkoitian hitanoa, eta bereziki, **noka**, sustatzeko martxan jarritako egitasmoari irudia ipintzeko dun/k.

AZKOITIAN BIZI BAHAIZ ETA 16 URTETIK GORA BADITUN/K HAR EZAN/K PARTE!

600 euroko saria irabazlearentzat!

Lanak aurkezteko epea: **ekainaren 1etik 22ra**

Oinarriak: www.azkoitia.eu atarian

Informazioa: euskara@azkoitia.eu eta **943 85 71 75**

Udalak **HIKA hizkera Azkoitian indartzeko eta bultzatzeko** duen proiektua identifikatzeko logotipo lehiaketa deitu du, honako oinarrien arabera:

I. Helburua

Lehiaketa honen helburua da HIKA hizkera Azkoitian bultzatzeko proiekturako erabiliko den logotipoa aukeratzea.

2. Parte hartzaileak

Lehiaketan Azkoitian errolatutako 16 urtetik gorako herritar guztiek parte har dezakete. Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi lan original aurkeztu ahal izango ditu.

3. Baldintzak

- Lan **originala**, argitaratu gabea eta inon saritu gabea izan beharko du.
- Logotipoak derrigorrez **leloa** jaso behar du **bere baitan**.
- Lanak **NOKA** hizkera islatu beharko du.
- Logotipoa egiteko edozein diseinu teknika erabili ahal izango da, baina, **formatuak eskalagarria** izan beharko du.

4. Aurkeztu beharrekoa

- Logotipoa paperean, gehienez A-4 formatuan, eta euskarri digitalean.
- Logotipoa koloretan, grisen eskalan edo zuri-beltzean.
- Logotipoaren aldaerak erresoluzio altuan aurkeztu beharko dira, ahal bada bektore formatuan (.ai, .svg, .pdf, .eps) edo bestela, erresoluzio finkoan gutxieneko neurria 2.000 pixel izan beharko duelarik zabaleran edo luzeran (.psd, .png, .jpg, .tiff)
- Logotipoaren memoriak gutxienez honako atalak jaso beharko ditu:
 - Logotipoaren esanahia azaldu, arrazoitu.
 - Tipografia, koloreak ohiko nomenklaturaren arabera, neurriak...

Lanak ez dira itzuliko. Prozesua bukatutakoan, lan guztiak Udal Artxiboan gordeko eta zainduko dira.

5. Epea

Logotipoa aurkezteko epea **2021eko ekainaren 1ean hasiko da eta 22an** bukatuko da (biak barne).

6. Lanak aurkezteko modua

Logotipoa izena emateko inprimakiarekin eta aurkeztu beharreko agiriarekin batera ezizenez sinatuta aurkeztu beharko da Azkoitiko udaleko harrera bulegoan aurrez aurre, postaz ala telematikoki.

Lan bakoitzeko izen-emate inprimakia aurkeztu beharko da.

Proposamena lehiaketara aurkeztu ondoren, ezin izango da erretiratu.

Aurrez aurre eta postaz: izena emateko inprimakiarekin bi gutun-azal ezizenez sinatuta erantsi beharko dira. Batean aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu beharko dira. Bestean, berriz, egilearen izen-abizenak, helbidea, emaila eta telefonoa.

Telematikoki: izena emateko inprimakiarekin bi fitxategi erantsi beharko dira. Batean aurkeztu beharreko agiriak ezizenez sinatuta aurkeztu beharko dira. Bestean, berriz, egilearen izen-abizenak, helbidea, emaila eta telefonoa.

7. Saria

Irabazleari 600,00 euroko sari bakarra emango zaio (dagokion zerga-atxikipena izango du).

8. Balorazio-irizpideak

- Azkoitiko hizkera jasotzea	%15
- Noka jasotzea.....	%35
- Originaltasuna.....	%15
- Kalitate artistikoa, sormena eta formatu ezberdinetan erabiltzeko egokitasuna	%35
Guztira	%100

Konnotazio sexistak, xenofoboak, arrazistak, homofoboak edo iraingarriak dituzten logotipoak baztertu egingo dira.

9. Epaia

Epaia aldaezina izango da eta aurkeztutako lanen maila egokia ez bada, epaimahaia lehiaketa epairik gabe utzi ahal izango du.

Irabazleari epaia telefonoz edo posta elektronikoz jakinaraziko zaio.

Logotipo irabazlea 2021eko ekainaren 30ean jakinaraziko da komunikabideen bidez eta handik egun batzuetara pleno aretoan banatuko da saria.

10. Logotipoaren jabetza-erakubidea

Logotipo sarituaren egileak Azkoitiko udalari lagatzen dizkio, eskusiboki, lan irabazlearen ustiapen-, erreproduzio-, manipulazio-, edizio-, eta erakusketa-eskusibideak, bai eta lanaren jabetza industrialaren ere, apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretuaren 17. eta 48. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.

Sarituak erantzukizun osoa hartuko du bere gain sor daitekeen edozein eratako erreklamazioen aurrean, edo aurkeztutako lanen originaltasunari, antzekotasunari edo kopia partzialari buruz hirugarrenek egin diezazkieketen erreklamazioen aurrean.

II. Oinarriak onartzea

Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.